


Euskal Autonomia Erkidegoan 7.455 ezkontza izan ziren 2024an, aurreko urtean baino % 2,6 gehiago

2019ko datuekin alderatuta, % 0,2 egin du behera

Eustaten datuen arabera, 2024an 7.455 ezkontza izan ziren Euskal AEn, hau da, 2023an baino % 2,6 gehiago. Euskal AEn bizi direnen ezkontzak sexu desberdineko pertsonen artean aztertuz gero, 7.178 ezkontza izan dira; aurreko urtean baino 156 ezkontza gehiago. 2019. urtearen aldean, ezkontzen kopuruak % 0,2 egin du behera.

2024an Euskal AEko ezkontza-tasa mila biztanleko 3,1 ezkontzakoa da; zifra hori Espainiakoa (‰ 3,5) eta Europar Batasunekoa (‰ 4) baino txikiagoa da; bi kasu horietan 2023ko datuak ditugu —eskuragarri dagoen azken urtea—.

Euskal AEko ezkontzen bilakaera motaren arabera




Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Ezkontzeko batez besteko adinak gora egin du sexu desberdineko bikoteen ezkontzetan

Sexu desberdineko bikoteetan ezkontzeko adinak gora egin du 2024an, 2023koarekin alderatuta; izan ere, batez beste, 39,2 urterekin ezkondu dira gizon egoiliar ezkongabeak, eta 37,3 urterekin, berriz, emakume egoiliar ezkongabeak; 2023an, berriz, 38,8 eta 36,8 urte zituzten batez beste ezkondu zirenean, hurrenez hurren. 2019an, berriz, 37,7 eta 35,7 urte zituzten, hurrenez hurren. Bi ezkontideen arteko adin-aldea bere horretan mantendu da, hots 2 urte inguru.

Aurretik dibortziazatuta zeuden senar-emazteen ehunekoa % 16,6 eta % 16,2koa izan zen, hurrenez hurren, 2024an; balio hori 2023koa baino handiagoa da, bai senarren kasuan, bai emazteen kasuan, % 14,9 eta % 15,4 izan baitziren, hurrenez hurren.

Sexu desberdineko pertsonen arteko lehen ezkontzako adina Euskal AEn, sexuaren arabera



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Sexu bereko bikoteen ezkontzen kopuruak gora egin du

2024an 277 ezkontza izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan sexu bereko ezkontideekin, hau da, 2023an baino % 14,5 gehiago. 2012az geroztik emakumeen arteko ezkontzak gizonen artekoak baino gehiago izan dira: 2024an, emakumeen arteko ezkontzak sexu bereko pertsonen arteko ezkontza guztien % 52,3 izan ziren.

Sexu bereko bikoteen ezkontzetan, 2024an, gizon egoiliar ezkongabeak 41,5 urterekin ezkondu ziren batez beste, eta emakumeak 38,1 urterekin. Bikote horietan aurretik dibortziazatuta dauden gizonen ehunekoa % 12,1ekoa da, eta emakumeena, berriz, % 8,4koa.

2024ko 10 ezkontzatik 9 zibilak izan ziren


Ezkontza zibilak ezkontzen % 92,3 dira, hau da, 2023an baino ehuneko 1,8 puntu gainetik. 1994an ezkontza zibilak ezkontza guztien % 26,6 baino ez ziren.

Bizilekuari dagokionez, ezkonduetakoen % 96,1 Euskal AEn bizi da eta % 3,9 Euskal AEtik kanpo. Bikote horien bizileku nagusiak Kantabria (57), Madril (56) eta Nafarroa (40) dira.

Ostiralean egindako ezkontzak larunbatean egindakoak baino gehiago izan dira

Ezkontza zibilen gorakada handiaren ondorioz, 2009tik aurrera, ezkontza zibilen ia erdiak ostiralean egin ziren, eta ezkontza erlijiosoaren kopuruak nabarmen egin du behera. Horren ondorioz, 2017az geroztik, Euskal AEn ezkontza gehiago egin dira ostiraletan larunbatetan baino; 2024an, proportzioa % 49,1ekoa eta % 29,1ekoa izan da, hurrenez hurren.

Ezkontzen eguna Euskal AEn



Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Sexu desberdineko pertsonen ezkontzen % 20,7an ezkontideetako batek, gutxienez, atzerriko nazionalitatea du

Sexu desberdineko pertsonen ezkontzak kontuan hartuta, 1.485 ezkontzatan ezkontideetako bat, gutxienez, atzerritarra da, guztizkoaren % 20,7; 2023an ehuneko hori % 24,6 zen. Bikote horien % 44tan emazteak bakarrik du atzerriko nazionalitatea, eta % 35,2tan senarrak bakarrik; % 20,8tan, berriz, bi ezkontideak dira atzerritarrak.

Bi ezkontideak atzerritarrak dituzten sexu desberdineko pertsonen ezkontzen artean, gehienek nazionalitate amerikarra dute; hala ere, ehuneko hori emakumeen artean (% 76,7) gizonen artean (% 67,9) baino handiagoa da. Ezkontideen nazionalitateari dagokionez bigarren kontinentea Europa da gizonen kasuan (% 17,5), eta Afrika emakumeen kasuan (% 11,6).

Atzeritar nazionalitatea emakumeak bakarrik duen ezkontzen kasuan, emakume horien % 68,8 Amerikako herrialde batekoak dira (batez ere Kolonbia eta Nikaragua), eta % 19,9 Europako herrialde batekoak (Errumania eta Ukraina nabarmentzen dira).

Atzeritarrak gizonezkoak baino ez badira, gizon horiek Amerikako herrialdeetakoak dira (% 45,6) —batez ere Kolonbia eta Nikaragua—, eta Afrikako herrialdeetakoak (% 27). Azken horien artean, marokarrak nabarmentzen dira, afrikarren % 67,4 baitira.

Euskal AEko ezkontzak, ezkontza-hilabetearen, inskripzio-lurraldearen, bizileku-lurraldearen eta ezkontza-motaren arabera. 2019-2024

	2024		2023		2022		2021		2020		2019				
	KOP	KOP	Gehikuntza (%) 2024/2023	KOP	Gehikuntza (%) 2024/2022	KOP	Gehikuntza (%) 2024/2021	KOP	Gehikuntza (%) 2024/2020	KOP	Gehikuntza (%) 2024/2019				
Ezkontzak	7.455	7.264		2.6	7.807		-4,5	6.427		16,0	4.057	83,8	7.471		-0,2
Ezkontza-hilabetea															
Urtarrila	268	281		-4,6	286		-6,3	286		-6,3	333		-19,5	228	17,5
Otsaila	335	251		33,5	311		7,7	247		35,6	363		-7,7	290	15,5
Martxoa	466	559		-16,6	454		2,6	324		43,8	229		103,5	497	-6,2
Apirila	533	451		18,2	502		6,2	404		31,9	16		3231,3	422	26,3
Maiatz	786	779		0,9	774		1,6	577		36,2	89		783,1	755	4,1
Ekaina	1.094	1.063		2,9	1.053		3,9	839		30,4	359		204,7	996	9,8
Uztaila	874	981		-10,9	1.203		-27,3	961		-9,1	577		51,5	1.022	-14,5
Abuztua	368	285		29,1	466		-21,0	342		7,6	250		47,2	501	-26,5
Iraila	1.055	1.092		-3,4	1.094		-3,6	862		22,4	667		58,2	1.077	-2,0
Urria	812	683		18,9	813		-0,1	782		3,8	583		39,3	813	-0,1
Azaroa	541	495		9,3	500		8,2	463		16,8	295		83,4	518	4,4
Abendua	323	344		-6,1	351		-8,0	340		-5,0	296		9,1	352	-8,2
Inskripzio-lurraldea															
Araba / Álava	1.060	907		16,9	1.028		3,1	908		16,7	539		96,7	989	7,2
Bizkaia	3.462	3.389		2,2	3.564		-2,9	2.888		19,9	1.888		83,4	3.410	1,5
Gipuzkoa	2.458	2.379		3,3	2.622		-6,3	2.147		14,5	1.355		81,4	2.458	0,0
Euskal AEtik kanpo	475	589		-19,4	593		-19,9	484		-1,9	275		72,7	614	-22,6
Egoitza duen lurraldea															
Araba / Álava	1.086	987		10,0	1.061		2,4	949		14,4	546		98,9	1.014	7,1
Bizkaia	3.575	3.509		1,9	3.721		-3,9	2.987		19,7	1.965		81,9	3.560	0,4
Gipuzkoa	2.500	2.426		3,1	2.676		-6,6	2.206		13,3	1.376		81,7	2.528	-1,1
Euskal AEtik kanpo	294	342		-14,0	349		-15,8	285		3,2	170		72,9	369	-20,3
Ezkontza-mota															
Sexu desberdineko pertsonen artean	7.178	7.022		2,2	7.556		-5,0	6.161		16,5	3.911		83,5	7.265	-1,2
Gizon artean	132	106		24,5	107		23,4	106		24,5	50		164,0	86	53,5
Emakume artean	145	136		6,6	144		0,7	160		-9,4	96		51,0	120	20,8

Data 2025eko Urriaren 10a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel: 945 01 75 62